

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**6462** *5/2021 Lege Organikoa, apirilaren 22koa, Zigor Kodearen 315. artikulua 3. apartatua indargabetzekoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

#### HITZAURREA

Konstituzioaren definizioari jarraituz, Espainia zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa da, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi gisa, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.

Lan-eremuko egitura-desberdintasuna orekatzeko beharra justifikaziotzat hartuta, Konstituzioaren 37. artikulua garatu zen gerora, negoziazio kolektiborako eskubideari, gatazka kolektiboko neurriak hartzeari eta jurisprudentzia eta sindikatze askatasuna garatzeari zegokienez; horiek horrela, lan-harreman demokratikoagoak biltzen zituen sistema ezarri zen, 1978. urtea baino lehenagoko lan-harremanen asimetria zuzentzeko.

Alderdi Popularra Gobernura iritsi zenean, 2011ko abenduan, askatasunak deuseztatzeko prozesu sistematiko eta etengabe bat hasi zen, krisialdia aprobetxatuz; batez ere, Gobernuaren politika ekonomikoekiko desadostasuna erakusteko manifestaldi publikoei eragiten zieten askatasunak deuseztatu ziren.

Lan-erreformak ia guztiz baztertu zuen langileen negoziazio kolektiboa, eta, horrez gainera, langileen beste eskubide asko baliorik gabe utzi zituen, edo, zuzenean, ezabatu. Hori aski ez zela iritzita, gatazka kanporatzeko neurri guztiak indartu ziren zuzeneko eraso bidez, indarrean zeuden legeak erabiliz, epe motzean: batetik, Herriarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa eta, bestetik, Zigor Kodearen 315.3 artikulua. Epe ertainean, berriz, lege multzo bat onartu zen, herritarrek eta erakunde sindikalek Gobernuaren politiken aurrean erreakzionatzeko, protestatzeko edo erresistentzia erakusteko zuten gaitasuna itotzeko.

Horiek horrela, Zigor Kodearen 315. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako derrigortze-forma astundua aplikatu izan da, derrigortze orokorren forma arinagoaren ordez, nahiz eta, kasu gehienetan, egitateak ez izan indarkeriazkoak edo bortxazkoak, eta, ondorioz, ez ekarri arrisku ziurrik pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunerako. Legea horrela aplikatuz, greba-eskubidea eta, ondorioz, sindikatu-askatasuna egikaritzeko asmoa kendu nahi izan zaie herritarrei.

Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez –Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena–, legearen zigor-erantzuna arindu nahi izan zen, baina ez zen erantzun proportzionaturik eman, eta ez zen ezer berririk edo beharrezkorik erantsi arauaren bidez lortu nahi zen helburuari zegokionez. Hori dela eta, Zigor Kodearen 315.3 artikulua desagerrarazi behar da gure zigor-ordenamendutik, zeren eta, lehendik ere, derrigortze delitu orokorrak behar bezala babesten baitu greba ez egiteko askatasuna.

Gainera, jarduketa horiek ez datoz bat gure sistema konstituzionalaren aurreikuspenekin, ezta Lanaren Nazioarteko Erakundearen landutako testuen sinatzaile gisa Espainiak dituen betebeharrekin ere.

Azkenik, orain arte adierazitako arrazoiez gain, bada beste arrazoi bat, manua ezaba dadila proposatzera bultzatzen gaituena: delitua interpretatzeko modua, zeinak eragin baitzuen delitua aplikazioa zabaltzea, ez zegokion bezala interpretatzeagatik. Izan ere,

manuak interpretatu behar dira gaiari buruzko konstituzio-doktrina kontuan hartuta, eta, gainera, interpretatzaileek ziurtatu behar dute arauaren interpretazioak ez diola inori asmorik kenduko mugatzen den oinarritzko eskubidea egikaritzeko.

**Artikulu bakarra.** *Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Ezabatu egiten da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 315. artikulua 3. apartatua.

Xedapen iragankor bakarra. *Epaiak berrikustea.*

Epaiak edo auzitegiek berrikusi egin beharko dituzte orain indargabetzen den legeriaren arabera emandako epai irmoak.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,  
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2021eko apirilaren 22an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN